



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko  
ikergunea

2020ko abendua

---

**UPV/EHUKO  
ZENBAIT  
FAKULTATETAN  
HIZKUNTZEN  
ERABILERAREN  
NEURKETA**

**2020-2021  
IKASTURTEA**

---

Emaitzen txostena



## Aurkibidea

1	SARRERA .....	2
2	IKERKETA HELBURUAK .....	2
2.1	Behatu diren fakultateak .....	3
3	METODOLOGIA .....	4
3.1	Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia .....	4
3.1.1	Landa-lana .....	4
3.1.2	Elkarrizketa-hizkuntza .....	5
3.2	UPV/EHUko fakultateetako neurketaren berezitasun metodologikoak .....	5
3.2.1	Aztergaiak .....	5
3.2.2	Ibilbideak eta neurraldiak .....	6
3.2.3	Neurtzaile-bikoteak eta mugikorreko aplikazioa .....	6
3.2.4	Oharrak .....	7
3.2.5	Datuen adierazgarritasuna .....	7
3.3	Fitxa teknikoa: UPV/EHU, 2020 .....	8
3.3.1	Ibilbideak .....	8
3.3.2	Landa-lana .....	9
3.3.3	Unibertsoa eta lagina .....	10
3.4	Laginaren osaera .....	11
3.4.1	Sexuaren araberako osaera .....	11
3.4.2	Jardueraren araberako osaera .....	12
4	EMAITZAK .....	14
4.1	Hizkuntzen erabilera orokorra .....	14
4.1.1	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE) .....	16
4.2	Sexuaren arabera .....	17
4.2.1	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE) .....	18
4.3	Jardueraren arabera .....	20
4.3.1	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE) .....	22
4.4	Solaskide-taldearen osaeraren arabera .....	23
4.4.1	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE) .....	27
5	DATU NAGUSIEN LABURPENA .....	28
	BIBLIOGRAFIA .....	29

## 1 SARRERA

UPV/EHUko Unibertsitateko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak zenbait Fakultatetako eremu ez-formaletako hizkuntzen erabilera behatzeko egitasmoa jarri zuen abian 2017-2018 ikasturtean. Orduetik hona, hamar fakultatetako hizkuntza-erabilera behatu du Soziolinguistika Klusterrak.

2020-2021 ikasturteko egitasmoan, Donostiako Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker, Donostiako eta Bizkaiko Campusetako behaketa-lanak areagotu dira. Hala, zazpi fakultate berritan egin da datu-bilketa.

Ikerketa UPV/EHUk aurrera daraman "Aktibatu" proiektuaren baitan kokatzen da. Azken finean, Unibertsitatean euskararen erabilera sustatzea du helburu nagusi proiektu horrek.

Txosten honetan, 2020-2021eko ikasturtean egindako neurketen emaitza nagusiak biltzen dira. Lehenik eta behin, neurketa hauen helburuak azpimarratu dira. Jarraian, xehetasun metodologikoak biltzen dituen atala dator. Ondoren aurkezten dira 2020-2021eko ikasturtean behatu diren fakultateetako hizkuntza-erabilerari buruzko datu orokorrak. Azkenik, datu nagusien laburpena eskaintzen da.

Halaber, orri hauetan aurkeztuko diren datuak ulertzeko, kontuan izatekoa da 2020-2021 ikasturtearen hasiera erabat baldintzatu duela COVID-19 birusaren pandemiak. UPV/EHUk aurrez aurreko irakaskuntzaren aldeko apustua egin da, eta beraz, behaketa-lanak bideratzeko aukera egon da. Halere, birusaren zabalkundea ekiditeko, berariazko protokoloa jarri da martxan fakultateetan.

Horren guztiaren ondorioz, 2020. urte honetan, erronka izan da hizkuntzen erabileraren neurketak egiteko metodologia fakultateetako egoera berri(eta)ra egokitzea. Izan ere, UPV/EHUko fakultateetan hartutako neurri horiek kontuan hartu behar izan dira, fakultate bakoitzeko ibilbideak eta neurraldiak zehazteko eta datu-bilketa diseinatzeke.

Ez da zalantzan jarri, ordea, pandemiaren testuinguru honetan ere, UPV/EHUko fakultateetako hizkuntza-erabilera zer-nolakoa izan den jakiteko beharra, eta hasiera-hasieratik egin da ahalegina, UPV/EHUren eta Soziolinguistika Klusterraren artean, neurketa hauek aurrera eramateko.

## 2 IKERKETA HELBURUAK

Hizkuntzen erabileraren neurketen bidez, UPV/EHUko fakultateetako eremu ez-formaletako euskararen erabilera zenbatekoa den jakin nahi da.

Hain zuzen, ikerketa honen bidez, galdera hauek erantzun nahi dira:

- zenbat hitz egiten da euskaraz, oro har, fakultateko esparru ez-formaletan?
- ikasleek berdinean egiten dute eurak bakarrik osatutako taldeetan daudenean edo irakasleekin ari direnean?

## 2020-2021 ikasturtea

- Eta ez-ikasleek (irakasleek edo beste langileek) berdin egiten dute euren artean hizketan ari direnean edota ikasleekin daudenean?

Horiek horrela, helburu nagusizat ezarri da eremu informaletako hizkuntza-erabilerari buruzko datua eskuratzea fakultate guztietan.

Nabarmentzekoa da, abiapuntutik bertatik asmoa izan dela 2017-2018 ikasturtean hasitako neurketei aurrerantzean ere jarraipena ematea neurketa berriak eginez. Eta asmo horri erantzunez, 2020-2021eko ikasturtean, fakultate berrietan behaketak egiteaz gain, aurreko ikasturteetan behatutako fakultate berdinak ere aztergai izatea proposatu zen. Modu horretan, diakronikoki euskararen erabileraren bilakaeraren berri eskuratu nahi zen, sinkronikoki ezagutza zabaltzen jarraituko dugun aldi berean, fakultate desberdinetan egingo ditugun neurketekin.

2020-2021eko ikasturtean, ordea, COVID19aren pandemiari aurre egiteko neurri bereziak hartu ditu fakultate bakoitzak, eta unean uneko egoerara egokitzeko ahalegin handia egin da. Hori dela eta, neurketa errepikatzeke proposatu zitzaizen fakultateek ez zuten aukerarik ikusi neurketa bideratu ahal izateko.

### 2.1 BEHATU DIREN FAKULTATEAK

Ondorengo taulan ikus daiteke, ikasturtez ikasturte, zein fakultatetan egin diren neurketak:

CAMPUSA	2017-2018	2019-2020	2020-2021
<b>Araba</b>	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Arabako atala)
	Letren Fakultatea	Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	
	Farmazia Fakultatea		
<b>Bizkaia</b>	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
	Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Bilboko Ingeniaritza Eskola
			Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Leioa)
<b>Gipuzkoa</b>	Hezkuntza, Filosofia, eta Antropologia Fakultatea	Hezkuntza, Filosofia, eta Antropologia Fakultatea	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoako atala)
	Informatika Fakultatea	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE) <sup>1</sup>
			Arkitektura Goi Eskola Teknikoa

<sup>1</sup> Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako hizkuntza-erabileraren emaitzak aurkezteko, datu orokorraz gain, Donostiako eta Eibarko eraikinetako emaitzak bereizi dira.

## 3 METODOLOGIA

Euskararen egoera nolakoa den deskribatzeko garaian, askotan jotzen da iritzia ematera. Baina subjektibotasuna saihesteko, gero eta garrantzitsuagoa da egoeraren berri emango duten datuak eskuartean izatea, balorazioetan objektibotasuna lortzeko. Hala, datu horiek lortzeko, alegia, euskararen presentzia nolakoa den adierazteko, baliagarria da euskararen erabilera zenbatekoa den kuantifikatuko duten neurketak burutzea. Izan ere, soziolinguistika arloko eskarmentuak erakutsi du erabilera dela hizkuntza baten egoeraren adierazle esanguratsuen eta fidagarriena.

Helburu horrekin sortu zen hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko metodologia, eta Euskal Herriko nahiz herrietako hizkuntzen erabilerearen kale-neurketak burutzeko erabili ohi da. Kale-neurketaren metodologia "Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko Gida Metodologikoa" (Altuna eta Basurto, 2013) argitalpenean jaso da (<http://www.soziolinguistika.eus/gida>).

Oinarri metodologiko hori baliatuz, hainbat gunetan neurketa bereziak egiten ditu Soziolinguistika Klusterrak, hala nola, haur eta gazteen eskolaz kanpoko jardueretan, lantokietan, ikastetxeetan... Kasu honetan, **UPV/EHUko fakultateetako berezitasunetara egokitu da metodologia**. Hala, ikerketa honetan eskuratzen den informazioa erabilgarri egongo da euskararen erabilera areagotzeko edo bestelako interbentzioak antolatzeko.

### 3.1 EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZA-ERABILERAREN KALE-NEURKETAREN METODOLOGIA

Hizkuntza-erabilerearen Euskal Herriko Kale-neurketa 1989. urtean egin zen lehen aldiz, eta geroztik zazpi alditan errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean, 2006an, 2011n eta 2016an. Orotara 515.000 hiztunetik gora behatzen dira kalean hizketan. Gaur-gaurkoz, euskararen egoera zertan den ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia bilakatu dira datu horiek.

Kale-neurketan erabiltzen den teknika **behaketa zuzena** da; hau da, ezertxo ere galdetu gabe, behatzen den eremuetan topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen da. Hala, teknika honen abantaila azpimarragarrienetakoa neurtzaileek hiztunaren joera naturala jasotzen dutela da, datuen subjektibotasuna saihestuz eta emaitza fidagarriagoak lortuz.

Eskuartean dugun neurketaren ikerketa-eremua bestelakoa da: herriko kaleak neurtzetik Unibertsitateko fakultateak neurtzera igaro gara. Ikerketa-teknika, ordea, ez da aldatuko: behaketaren bidez aztertuko da UPV/EHUko fakultateetan zein hizkuntza-erabilera aditzen den.

#### 3.1.1 Landa-lana

Landa-lana behar bezala egiteko, diseinu teknikoaren fasean beharrezkoa da aurrez bi datu zehaztea: **ibilbidea eta neurraldiak**, hain zuzen ere.

## 2020-2021 ikasturtea

Alde batetik, beraz, herriko kalerik jendetsuenak biltzea irizpide nagusitzat hartuz (plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa kaleak, eta abar.) neurtu beharreko kale horiek finkatzen dira eta ibilbidea(k) definitzen d(ir)a.

Bestalde, neurketarako egun eta orduak zehaztu behar dira, helburu nagusia herriko biztanle guztiak (potentzialki behintzat) neurtzea izanik. Nolabait ere, hautatutako egun eta orduetan herritar guztiak estatistikoki neurtuak izateko aukera bildu nahi da neurraldien eta ibilbideen diseinuarekin.

### 3.1.2 Elkarrizketa-hizkuntza

Oinarrizko behaketa-unitatea taldeko elkarrizketa-hizkuntza da; ez dugu norbanakoaren hizkuntza neurtzen. Beraz, ezinbestean, bi lagun edo gehiagoren arteko elkarrizketak dira zenbatzen direnak. Dena den, aintzat hartzekoak dira bi ohar hauek:

- Bakarrizketa gisa ere jasotzen ditugu elkarrizketa mota batzuk: adibidez, mugikorreko elkarrizketak, non hiztun bakarra jasoz biltzen den elkarrizketa telefonoz beste aldera dagoena ez dugulako ikusten.
- Normalean soilik bat edo bi lagun entzuteko denbora izaten da. Beraz, taldeko elkarrizketa-hizkuntza definitzerakoan, une horretan hizketan ari denaren hizkuntza hartzen dugu kontuan talde osoarentzat.

Azkenik, gerta daiteke pertsona batek hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea bere jardunean. Kasu horietan, hizkuntza nagusia jasotzen da, alegia, gehien erabiltzen duena.

## 3.2 UPV/EHUko FAKULTATEETAKO NEURKETAREN BEREZITASUN METODOLOGIKOAK

### 3.2.1 Aztergaiak

Erabileraren datuak hiztunen ezaugarriekin aztertuko dira, alegia, behatutako elkarrizketetan parte hartu dutenak **ikasleak ala ez-ikasleak** diren. Kontuan izan behar da, azken kasu horretan irakasleak edo bestelako langileak izan daitezkeela, eremu horietan hizketan ari direnak. Bereizketa hori eginda, euskararen erabilera orokorra zenbatekoa den jakiteaz gain, erabilera horren nolakotasuna zehazteko aukera izango da elkarrizketan parte hartu dutenen giza taldeen arabera.

Jakina, metodologiak bere mugak jartzen ditu galdera horiei erantzuteko orduan, izan ere, ezin da jakin ziurtasun osoarekin behatutako zein den ikaslea eta zein ez. Alegia, behaketaren ezaugarri nagusienetakoa diskrezioa denez, behatuak diren elkarrizketetan parte hartzen dutenak ikasleak edo ez-ikasleak diren erabakitzekeo hipotesi-mailan jokatu behar dute behatzaileek. Horrela bada, hipotesi modura planteatu da 30 urte azpiko pertsonak ikasleak izan daitezkeela eta hortik gorakoak ez-ikasleak (irakasleak edo bestelako langileak).

Arrazoi berberetatik, behatzen ari garen espazio publiko horietan dauden pertsonak fakultate horietan ikasten edo lanean ari diren kideak diren jakiterik ere ez dago. Horrela bada, espazio horietan entzuten dena behatu dela esango du ikerketak, eta ez zorrozki bertako ikasle edo langileena.

### 3.2.2 Ibilbideak eta neurraldiak

Datu-bilketa behar bezala egiteko, diseinu teknikoaren fasean beharrezkoa da aurrez bi datu zehaztea: ibilbideak eta neurraldiak. Hau da, aztergai diren **fakultateetako espazio ez-formal nagusiak zeintzuk diren** zehaztu da, baita horietan **ahalik eta pertsona gehiagoren jarduera behatzeko moduan egon gaitzkeen egunak eta orduak** ere. Izan ere, helburu nagusitzat dugu fakultateko hizkuntza-jarduera ahalik eta zabalena jasotzea, eta beraz, fakultateko kide oro, potentzialki behintzat, behatzeko moduko diseinua osatu da.

Irizpide horiek jarraituz, fakultate bakoitzeko honako gune hauek neurtu dira: sarrera-irteerak, pasabideak, eskailerak, kafetegi ingurua... (fakultatearen tamainaren arabera, behar adina ibilbide marraztuz). Era berean, klaseetarako sarrera-irteeren ordutegia hartu izan da kontuan. Hala, **hiru astez** luzatutako behaketetan, **egunero ordubeteko behaketa** egin da ibilbide bakoitzean<sup>2</sup>.


Fakultate bakoitzean ikerketaren ardura izango duen irakaslearekin adostu dira horiek guztiak.

### 3.2.3 Neurtzaile-bikoteak eta mugikorreko aplikazioa

**Behaketa lanetan** (neurtzaile modura) fakultate horietako **ikasleak** aritu dira. Horretarako, jakina, Soziolinguistika Klusterrak berariazko formazioa eskaini die aurrez. Formazio-saio hori modu birtualean antolatu zen 2020ko urrian.

Datu-bilketa modu egokian egiteko, funtsezkoa da diskrezioa bermatu ahal izatea. Horretarako, bi neurri hauek hartu dira:

- Diseinatutako ibilbide bakoitzean, **neurtzaileak bikoteka** aritu dira datuak biltzen.
- Erabilera-datuak eta aztergaiak jasotzeko, Soziolinguistika Klusterraren **mugikorreko aplikazio informatikoa** erabili da:



<sup>2</sup> 2017-2018 eta 2019-2020 ikasturteetan, bi astez luzatu ziren behaketak.

2020-2021 ikasturtea

Horiek izan dira irizpide orokorrak. Nolanahi ere, neurketa bideratu ahal izateko, kasuan kasu egokitu egin behar izan dugu:

- Neurtzaile izan diren ikasleen klase-egutegiarekin<sup>3</sup> nahiz ordutegiarekin behaketa-lanak uztar zitezen, behaketa-ordutegiak egokitzeko malgutasuna eskaini zaie ikasleei; betiere, Soziolinguistika Klusterreko ikerlariari jakinarazita eta aurreikusitako egun bakoitzean ordubeteko behaketa-lanak egiten zirela errespetatuta.
- Bestalde, neurtzaile izan diren ikasle batzuk mugikorreko aplikazioa instalatzeko arazo informatikoak izan dituzte. Ondorioz, kasuren batean, datuak eskuz bildu dira, eta koadernoan jasotako elkarrizketak Soziolinguistika Klusterreko datu-basera igotzeko zeregina izan dute neurtzaileek.

3.2.4 Oharrak

Neurtzaileei lagungarri izateko helburuarekin, hona hemen datu-bilketarako eskura izan dituzten ohar-orriak:

The image shows three pages of a questionnaire titled "HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA".

- Page 1 (Left):** Contains introductory text and instructions. It asks "Zer neurtu behar da?" (What actions should be taken?) and "Neurtzaileak" (For the surveyor). It explains that the survey is for the 2020-2021 academic year and aims to understand language use patterns. It also asks "Neurketa, ez inkesta" (Survey, not a poll) and "Ibilbidea" (Methodology), explaining that the survey is a calendar-based survey where users mark their language use in a calendar grid.
- Page 2 (Middle):** Contains a section titled "Datuak nola jaso" (How to provide data) and "Neurketa nola egiten den azaltzeko HIRU ARDIBIDE jarriko ditugu:" (We will provide three ways to explain how the survey is done). It lists three methods: 1. Online survey, 2. Paper survey, and 3. Survey for those who cannot use the online survey.
- Page 3 (Right):** Contains a calendar grid for marking language use. The grid has columns for "EUSKARA" (Basque), "GAZTEARA" (Spanish), and "BIKIDUE" (Bilingual). The rows represent the months from January to December. The grid is used to mark the number of hours spent using each language per day. Below the grid, there are questions about language use habits, such as "Bi horietatik bat eta erdi bat badoaz euskaraz hitz egiten?" (Do you use one and a half of these languages when talking?).

3.2.5 Datuen adierazgarritasuna

Atal metodologiko hau amaitzeko gogoratu behar da, bestalde, emaitzak aztertzerakoan laginaren tamaina ere kontuan izan behar dela. Laginak gutxieneko kopuru bat bete behar du aldagai horren eragina aztertu ahal izateko. Izan ere, aldagaia zenbat eta zehatzagoa izan, lagina txikiagoa izango da eta datuek adierazgarritasuna galduko dute. Aldagai bat zenbat eta gehiago deskonposatu, orduan eta lagin txikiagoa izango da eta emaitzen irakurketa zaildu egingo da.

Horregatik guztiagatik, jarraipen berezia egin da, fakultatez fakultate, gutxieneko elkarrizketa kopurua behatzeko.

<sup>3</sup> COVID-19aren hedapenari aurre egiteko, hainbat fakultatek irakaskuntza bimodalari ekin die, eta, beraz, ikasketa-talde bakoitzeko ikasleen erdiak, txandakatuz, ez dira fakultatean egon.



### 3.3 FITXA TEKNIKOA: UPV/EHU, 2020

Aurreko puntuetan adierazi dira UPV/EHUko zenbait fakultatetan hizkuntza-erabileraren neurketaren berri emateko prozedura metodologiko guztiak.

#### 3.3.1 Ibilbideak

Arestian aurreratu dugun moduan, ibilbide bakoitzaren nondik norakoa zehazterakoan, fakultateetako espazio ez-formal nagusiak zeintzuk diren definitu dira: sarrera-irteerak, pasabideak, eskailerak, kafetegi ingurua eta abar. Fakultatearen tamainaren arabera, behar adina ibilbide marraztu dira:

LURRAL DEA	FAKULTAT EA	IBILBIDEA
<b>Araba</b>	Ekonomia eta Enpresa fakultatea (Arabako atala)	<u>EkonoAraba</u> : Fakultate aurreko eremua, sarrera eta atezaintza ingurua, lehenengo solairuko pasabidea, komunak
<b>Bizkaia</b>	Ekonomia eta Enpresa fakultatea	<u>Eraikin nagusia (Sarriko)</u> : Fakultate aurreko plazatxoa, sarrera eta idazkaritza ingurua, pasabide nagusiak, kafetegi eta jantoki ingurua, informatika gela, ikasketa gela eta liburutegi inguruak
		<u>Miguel Angel Blanco Garrido eraikina (Sarriko)</u> : Sarrera, pasabideak eta ikasgela inguruak
		<u>Bulego-eraikina eta fakultate ingurua (Sarriko)</u> : Bulego-eraikineko beheko solairuko pasabideak eta parkea.
		<u>Elkano eraikina</u> : Fakultate aurreko eremua, sarrera eta atezaintza ingurua, pasabide nagusiak, ikasgela inguruak, kafe makina inguruak...
		<u>Leraikina (C eta G)</u> : G eraikinerako sarrera eta atezaintza inguruak, VON SIEMENS plaza eta (1-2-3 solairuetako) pasabideak eta ikasgelen inguruak.
Bilboko Ingeniaritza Eskola <sup>4</sup>		<u>Leraikina (D, E eta A)</u> : TORRES QUEVEDO plaza eta fakultate inguruak, D eraikinerako sarrera eta atezaintza inguruak, E eraikineko pasabideetatik eta A eraikineko ikasgela eta kafe-makina inguruetara. Baita kafetegi eta jantoki inguruak ere.
		<u>Leraikina (B eta F)</u> : Termibuseko sarrera ingurua, solairuetako pasabideak, ikasgelen inguruak, kafe makina ingurua, erabilpen askeko informatika-gelen inguruak...
		<u>II eraikina (M eta I)</u> : Fakultate ataria ("PITXITXI" ibilbidean). M eraikineko sarreratik hasi eta liburutegi ondotik nahiz ikasgela ingurutik igaro I eraikinerara. Kafetegia, jantokia eta makinak ingurutik pasa. I eraikineko sarrera-atezaintzan eta fakultate atarian ("PITXITXI" ibilbidean) amaitu.
		<u>Odontologia sarreratik</u> : Fakultatearen aurrea, sarrera eta atezaintza inguruak, pasabideak eta ikasgelen inguruak. Kafe-makinako gunea
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Leioa)		<u>Medikuntza sarreratik</u> : Fakultatearen aurrea, sarrera eta atezaintza inguruak, pasabideak eta ikasgelen inguruak. Kafe-makinako gunea
		<u>Erizaintza sarreratik</u> : Fakultatearen aurrea, sarrera eta atezaintza inguruak, pasabideak eta ikasgelen inguruak. Kafe-makinako gunea

<sup>4</sup> Portugaleteko eraikina ez da neurtzerik izan, neurtzaile gisa aritzeko ikaslerik topatu ez delako.

2020-2021 ikasturtea

<b>Gipuzkoa</b>	Ekonomia eta Enpresa fakultatea (Gipuzkoako atala)	<u>EkonoGipuzkoa</u> : Ikasteko gelen ingurua, janlekuaren ingurua, pasabideetako mahaiak, kafetegi ingurua eta fakultate aurreko belardia
	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE)	<u>Donostiako eraikina</u> : Ordenagailu gelen ingurua, pasabideetako mahaiak, taberna ingurua eta fakultate aurreko gunea <u>Eibarko eraikina</u> : Fakultate aurrea, sarrera eta atezaintza, 1 eta 2 solairuetako pasabideak eta ikasgelen ingurua
	Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	<u>Arkitektura</u> : Fakultate aurreko belardia; 0 solairuan: Sarrerak eta atezaintza/idazkaritza inguruak, ikasle-gela eta kopisteria ingurua; 1 solairuan: joan-etorria pasabideetan; 2 eta 3 solairuetan: ikasgela eta lantegi inguruak; 4 solairuan: irudigintza gela ingurua eta terraza

### 3.3.2 Landa-lana

Ibilbideekin batera, neurketa egiteko egunak eta orduak zehaztu dira, betiere ahalik eta pertsona gehienek jarduera behatzeko aukera bermatu nahian. Klaseetako sarrera-irteeren ordutegia kontuan hartuz, **hiru astez** luzatu dira neurketak<sup>5</sup>, eta, **egunero, ordubeteko behaketa** egin da ibilbide bakoitzean.

Landa-lanari dagokionez, datu-bilketa 2020ko urriaren 19tik azaroaren 13ra bitartean egin dugu. Fakultatez fakultate, honako koadro honetan azaltzen diren neurraldiak jarraitu dira<sup>6</sup>:

		EGUNAK <sup>7</sup>	ORDUTEGIAK
<b>ARABA</b>	Ekonomia eta Enpresa fakultatea (Arabako atala)	Urriak 23, 28, 29, 30	8:00 - 8:30
		Azaroak 2, 3, 4, 5, 6 9, 10, 11, 12, 13	10:00 - 10:30 14:00 - 14:30 16:00 - 16:30
<b>BIZKAIA</b>	Ekonomia eta Enpresa fakultatea	Urriak 26, 27, 29, 30	8:00 - 8:30
		Azaroak 2, 3, 4, 5, 6 9, 10, 11, 12, 13	12:30 - 13:00 14:00 - 14:30 18:00 - 18:30
	Bilboko Ingeniaritza Eskola	Urriak 26, 27, 28, 29, 30	7:30 - 8:00
		Azaroak 2, 4, 5, 6 9, 10, 11, 12, 13	11:00 - 11:30 14:00 - 14:30
	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Leioa)	Urriak 26, 29, 30	8:30 - 9:00
		Azaroak 2, 5, 6 9, 12, 13	10:40 - 11:00 12:40 - 13:00 14:40 - 15:10

<sup>5</sup> 2017-2018 eta 2019-2020 ikasturteetan, bi astez luzatu ziren behaketak.

<sup>6</sup> Neurraldiak fakultate bakoitzeko arduradunarekin zehaztu dira. Dena den, egokitzapenak egin dira neurtzaileen ikasketa-ordutegiak bat etor zitezen. Kasuren batean, ez dira aurreikusitako neurraldi guztiak egin ikasleak ezin izan duelako fakultatera bertaratu (COVID19aren pandemiak eragindako konfinamendua tarteko edota ikasketa-ordutegiak bat ez zetorkiolako).

<sup>7</sup> Behaketa burututako egunen zerrenda ageri da hemen.

## 2020-2021 ikasturtea

<b>GIPUZKOA</b>	Ekonomia eta Enpresa fakultatea (Gipuzkoako atala)	Urriak 19, 20, 21, 22, 23 26, 27, 28, 29, 30 Azaroak 2, 3, 4, 5, 6	8:30 - 9:00 13:00 - 13:30 14:30 - 15:00 17:00 - 17:30
	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE)	Urriak 19, 20, 21, 22, 23 26, 27, 28, 29, 30 Azaroak 2, 3, 4, 5, 6	8:00 - 8:30 13:30 - 14:00 14:00 - 14:30 19:30 - 20:00
	Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	Urriak 19, 20, 21, 22, 23 26, 27, 28, 29, 30 Azaroak 2, 3, 4, 5, 6	8:00 - 08:30 14:30 - 15:00

### 3.3.3 Unibertsoa eta lagina

**UNIBERTSOA:** UPV/EHUko fakultate horietan entzun daitezkeen elkarrizketetan parte hartzen duten pertsonak.

**LAGINA:** behaketa egin dugun bitartean, behatu ditugun 10.293 elkarrizketek eta horietan solaskide izan diren 30.392 lagunek osatu dute lagina.

Ondoren ikus daitezke fakultate bakoitzean egindako behaketaren elkarrizketakopuruak eta bertan parte hartu duten solaskideak zenbat izan diren:

Lurraldea	Fakultatea	Elkarrizketak	Lagina (Solaskideak)
<b>ARABA</b>	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Arabako atala)	352	1.052
<b>BIZKAIA</b>	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	2.878	7.858
	Bilboko Ingeniaritza Eskola	1.292	3.594
	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Leioa)	1.718	5.433
<b>GIPUZKOA</b>	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE)	2.067	6.367
	Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	606	1.901
	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoako atala)	1.078	3.194


### 3.4 LAGINAREN OSAERA

Garrantzitsua da lagina osatu duten solaskideen ezaugarriak ezagutzea. UPV/EHUko fakultate horietako eremu ez-formaletan, zein profiletako solaskideekin egin dugu topo? Azter dezagun:

#### 3.4.1 Sexuaren araberako osaera

Fakultate bakoitzean behatu ditugun elkarrizketak ezaugarri desberdinetako solaskideek eratu dituzte. Hala, fakultatez fakultate, alde esanguratsuak daude solaskide horien sexuari erreparatuz:

1. **grafikoa: LAGINAREN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. UPV/EHUko ZENBAIT FAKULTATE, 2020 (%)**



Leioako Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean nabarmena izan da emakumezkoen presentzia: eremu ez-formaletan aditutako elkarrizketetan, solaskideen bi heren inguru izan dira emakumezkoak (% 67,2).

Aitzitik, Ingeniaritza Eskoletako elkarrizketetan, gizonezko gehiagoren hizkuntza-praktikak behatu ditugu. Bilbon nahiz Gipuzkoan gertatu da hori, hurrenez hurren, % 62 eta % 68,9 izan baitira gizonezkoak.

Gainerako fakultateetan behatu ditugun solaskideen artean, antzeko proportzioa hartu dute emakumezkoek nahiz gizonezkoek.

1. taula: LAGINAREN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. UPV/EHUko ZENBAIT FAKULTATE, 2020

	Araba				Bizkaia			
	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Arabako atala)		Ekonomia eta Enpresa Fakultatea		Bilboko Ingeniaritza Eskola		Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Leioa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<b>Emakumezkoak</b>	516	% 49,0	4.158	% 52,9	1.365	% 38,0	3.653	% 67,2
<b>Gizonezkoak</b>	536	% 51,0	3.700	% 47,1	2.229	% 62,0	1.780	% 32,8
<b>GUZTIRA</b>	1.052	100	7.858	100	3.594	100	5.433	100


  

	Gipuzkoa					
	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoako atala)		Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE)		Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<b>Emakumezkoak</b>	1.696	% 53,1	1.977	% 31,1	968	% 50,9
<b>Gizonezkoak</b>	1.498	% 46,9	4.390	% 68,9	933	% 49,1
<b>GUZTIRA</b>	3.194	100	6.367	100	1.901	100

3.4.2 Jardueraren arabeko osaera

Behatu ditugun elkarrizketetan parte hartu duten solaskideak jardueraren arabera aztertuz gero, ez da alde handirik sumatzen fakultatez fakultate:

2. grafikoa: LAGINAREN OSAERA, JARDUERAREN ARABERA. UPV/EHUko ZENBAIT FAKULTATE, 2020 (%)



2020-2021 ikasturtea

Fakultate guztietan, aztergai izan ditugun elkarrizketetan, ikasleen parte hartze nabarmena egon da (% 85etik % 96ra bitartekoa).

Puntu honetan, komeni da atal metodologikoan aipatutako oharra gogora ekartzea: ikerketa hau behaketa bidez gauzatu denez, ezin da jakin ziurtasun osoarekin behatutako zein den ikaslea eta zein ez. Neurtzaileek hipotesi hau kontuan hartuz bete dituzte datuak: 30 urte azpiko pertsonak ikasleak izan daitezkeela eta hortik gorakoak ez-ikasleak (irakasleak edo bestelako langileak).

Ildo honetatik, zalantzazko kasuen pisua oso txikia izan da.

2. taula: LAGINAREN OSAERA, JARDUERAREN ARABERA. UPV/EHUko ZENBAIT FAKULTATE, 2020

	Araba				Bizkaia			
	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Arabako atala)		Ekonomia eta Enpresa Fakultatea		Bilboko Ingeniaritza Eskola		Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Leioa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<b>Ikasleak</b>	901	% 85,6	7.001	% 89,1	3.370	% 93,8	5.203	% 95,8
<b>Ez-ikasleak</b>	146	% 13,9	835	% 10,6	222	% 6,2	230	% 4,2
<b>Zalantzazkoak</b>	5	% 0,5	22	% 0,3	2	% 0,1	0	% 0,0
<b>GUZTIRA</b>	1.052	100	7.858	100	3.594	100	5.433	100


	Gipuzkoa					
	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoako atala)		Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE)		Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<b>Ikasleak</b>	1.041	% 32,6	1.750	% 27,5	876	% 46,1
<b>Ez-ikasleak</b>	2.124	% 66,5	4.563	% 71,7	982	% 51,7
<b>Zalantzazkoak</b>	6	% 0,2	37	% 0,6	6	% 0,3
<b>GUZTIRA</b>	3.194	100	6.367	100	1.901	100

## 4 EMAITZAK

### 4.1 HIZKUNTZEN ERABILERA OROKORRA

UPV/EHUko fakultateetan egindako ikerketa honen emaitza nagusia ondorengo grafikoa ikus daiteke:

3. grafikoa: HIZKUNTZEN ERABILERA OROKORRA. UPV/EHUko ZENBAIT FAKULTATE, 2020 (%)



Gipuzkoako Campus-eko fakultateetan jaso da euskara erabilerarik altuena:

- Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoan jaso da euskararen erabilera handieneko datua: behatutako solaskideen ia erdia entzun da euskaraz (% 46,1).
- Horren ondotik, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Gipuzkoako atala kokatzen da. Bertan, behatutako solaskideen herena entzun da euskaraz (% 32,6).
- Azkenik, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako (GIE) euskararen erabilera-datua izan da txikiena Gipuzkoan 2020-2021 ikasturtean behatutako fakultateen artean: hamar solaskidetatik ia 3 entzun ditugu euskaraz (% 27,5).

Hain justu, GIEko erabilera-mailaren parean kokatzen da Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Arabako atala, bertan ere hamar solaskidetatik ia 3 entzun baititugu euskaraz (% 28,6).

Euskararen erabilerarik baxuena antzeman diegu, berriz, Bizkaiko Campus-eko fakultateei; bereziki, Bilbon kokatutako fakultateei:

2020-2021 ikasturtea

- Leioako Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean behatutako hamar solaskidetatik bi behatu ditugu euskarazko elkarrizketetan parte hartzen (% 22,0).
- Ekonomia eta Enpresa Fakultatean, berriz, hamar solaskidetatik bat entzun dugu euskarazko elkarrizketaren batean parte hartzen (% 10,7).
- Azkenik, Bilboko Ingeniaritza Eskolako euskararen erabilera-datua % 6,6koa izan da.

3. taula: HIZKUNTZEN ERABILERA OROKORRA. UPV/EHUko ZENBAIT FAKULTATE, 2020

	Araba				Bizkaia			
	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Arabako atala)		Ekonomia eta Enpresa Fakultatea		Bilboko Ingeniaritza Eskola		Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Leioa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<b>Euskara</b>	301	28,6	841	10,7	239	6,6	1.197	22,0
<b>Gaztelania</b>	747	71,0	6.828	86,9	3.335	92,8	4.233	77,9
<b>Frantsesa</b>	4	0,4	85	1,1	0	0,0	0	0,0
<b>Beste hizkuntza bat</b>	0	0,0	104	1,3	20	0,6	3	0,1
<b>GUZTIRA</b>	1.052	100	7.858	100	3.594	100	5.433	100

	Gipuzkoa					
	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoako atala)		Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE)		Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<b>Euskara</b>	1.041	32,6	1.750	27,5	876	46,1
<b>Gaztelania</b>	2.124	66,5	4.563	71,7	982	51,7
<b>Frantsesa</b>	6	0,2	37	0,6	6	0,3
<b>Beste hizkuntza bat</b>	23	0,7	17	0,3	37	1,9
<b>GUZTIRA</b>	3.194	100	6.367	100	1.901	100

Halaber, interesgarria da aipatzea euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntzen presentzia ere badela UPV/EHUko fakultateetan. Neurtzaileen bidez jakin dugu UPV/EHUko fakultateetan hizkuntza hauek ere entzun daitezkeela: frantsesa, ingelesa edota alemana.

Beste hizkuntza horietan elkarrizketa gutxi jaso badira ere, honako fakultate hauetan % 2a gainditzen du beste hizkuntza horietan entzun ditugun solaskide kopuruak (3. taulan, "frantsesa" eta "beste hizkuntza bat" lerroak batuta):

- Bizkaiko Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
- Gipuzkoako Arkitektura Goi Eskola Teknikoa




#### 4.1.1 Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE)

Arreta berezia eskaini zaio Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolari (GIE), izan ere, bertan neurtutako bi eraikinetan bi udalerrri desberdinetan kokatzen dira: bata Donostian eta bestea Eibarren.

Hala, 4. grafikoan ikus daitekeenez, Donostiako eraikinean (% 36,7) altuagoa da euskararen erabilera Eibarko eraikinean (% 20,1) baino. Beraz, euskararen erabilera-datuei dagokienez, GIEko Donostiako eraikina Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Gipuzkoako atalaren pareko mailan kokatuko litzateke.

4. grafikoa: HIZKUNTZEN ERABILERA OROKORRA. UPV/EHUko GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA (GIE), 2020 (%)



4. taula: HIZKUNTZEN ERABILERA OROKORRA. UPV/EHUko GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA (GIE), 2020

	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE)			
	Donostiako eraikina		Eibarko eraikina	
	Kop.	%	Kop.	%
<b>Euskara</b>	1.036	36,70%	714	20,10%
<b>Gaztelania</b>	1.780	63,10%	2.783	78,50%
<b>Frantsesa</b>	0	0,00%	37	1,00%
<b>Beste hizkuntza bat</b>	6	0,20%	11	0,30%
<b>GUZTIRA</b>	2.822	100	3.545	100


## 4.2 SEXUAREN ARABERA

Solaskideen sexuari erreparatzen badiogu, fakultate gehienetan emakumezkoen euskararen erabilera gizonetzkoena baino altuagoa da.

- Alde hori nabarmenagoa da Arabako Ekonomia eta Enpresa Fakultatean bereziki (13,9 puntu);
- baina baita Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan (8,3 puntu), Arkitektura Goi Eskola Teknikoan (6,2 puntu) eta Leioako Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean ere (4,5 puntu).
- Alde hori txikiagoa da Bilboko Ingeniaritza Eskolan (1,9 puntu) eta Gipuzkoako Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (2,6 puntu).

Salbuespen gisa, Bizkaiko Ekonomia eta Enpresa Fakultatea ageri zaigu. Bertan, emakumezkoek nahiz gizonetzkoek erabilera-datu antzekoa dute (% 10,8 eta % 10,5 hurrenez hurren).

### 5. grafikoa: EUSKARAREN ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. UPV/EHUko ZENBAIT FAKULTATE, 2020 (%)



### 5. taula: HIZKUNTZEN ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. UPV/EHUko ZENBAIT FAKULTATE, 2020

	Araba				Bizkaia			
	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Arabako atala)				Ekonomia eta Enpresa Fakultatea			
	Emak.		Gizon.		Emak.		Gizon.	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<b>Euskara</b>	184	% 35,7	117	% 21,8	451	% 10,8	390	% 10,5
<b>Gaztelania</b>	329	% 63,8	418	% 78,0	3.637	% 87,5	3.191	% 86,2
<b>Frantsesa</b>	3	% 0,6	1	% 0,2	36	% 0,9	49	% 1,3
<b>Beste hizkuntza bat</b>	0	% 0,0	0	% 0,0	34	% 0,8	70	% 1,9
<b>GUZTIRA</b>	516	100	536	100	4.158	100	3.700	100

<b>Bizkaia</b>									
	Bilboko Ingeniaritza Eskola				Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Leioa)				
	Emak.		Gizon.		Emak.		Gizon.		
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	
<b>Euskara</b>	107	% 7,8	132	% 5,9	859	% 23,5	338	% 19,0	
<b>Gaztelania</b>	1.246	% 91,3	2.089	% 93,7	2.792	% 76,4	1.441	% 81,0	
<b>Frantsesa</b>	0	% 0,0	0	% 0,0	0	% 0,0	0	% 0,0	
<b>Beste hizkuntza bat</b>	12	% 0,9	8	% 0,4	2	% 0,1	1	% 0,1	
<b>GUZTIRA</b>	1.365	100	2.229	100	3.653	100	1.780	100	

<b>Gipuzkoa</b>									
	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoako atala)				Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE)				
	Emak.		Gizon.		Emak.		Gizon.		
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	
<b>Euskara</b>	573	% 33,8	468	% 31,2	656	% 33,2	1.094	% 24,9	
<b>Gaztelania</b>	1.117	% 65,9	1.007	% 67,2	1.302	% 65,9	3.261	% 74,3	
<b>Frantsesa</b>	0	% 0,0	6	% 0,4	12	% 0,6	25	% 0,6	
<b>Beste hizkuntza bat</b>	6	% 0,4	17	% 1,1	7	% 0,4	10	% 0,2	
<b>GUZTIRA</b>	1.696	100	1.498	100	1.977	100	4.390	100	

<b>Gipuzkoa</b>				
	Arkitektura Goi Eskola Teknikoa			
	Emak.		Gizon.	
	Kop.	%	Kop.	%
<b>Euskara</b>	485	% 50,1	391	% 41,9
<b>Gaztelania</b>	466	% 48,1	516	% 55,3
<b>Frantsesa</b>	1	% 0,1	5	% 0,5
<b>Beste hizkuntza bat</b>	16	% 1,7	21	% 2,3
<b>GUZTIRA</b>	968	100	933	100


#### 4.2.1 Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE)

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolaren kasuan, Donostiako eraikinean ez da antzeman sexuen arteko bereizketarik, euskararen erabilerari dagokionean.

Eibarko eraikinaren kasuan, ordea, esanguratsua da emakumezkoen eta gizonetzkoen arteko euskararen erabileretan dagoen aldea: 17,3 puntu.

2020-2021 ikasturtea

6. grafikoa: EUSKARAREN ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. UPV/EHUko GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA (GIE), 2020 (%)



6. taula: HIZKUNTZEN ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. UPV/EHUko GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA (GIE), 2020


	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE)							
	Donostiako eraikina				Eibarko eraikina			
	Emak.		Gizon.		Emak.		Gizon.	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<b>Euskara</b>	252	% 37,2	784	% 36,6	404	% 31,1	310	% 13,8
<b>Gaztelania</b>	425	% 62,7	1.355	% 63,2	877	% 67,5	1.906	% 84,9
<b>Frantsesa</b>	0	% 0,0	0	% 0,0	12	% 0,9	25	% 1,1
<b>Beste hizkuntza bat</b>	1	% 0,1	5	% 0,2	6	% 0,5	5	% 0,2
<b>GUZTIRA</b>	678	100	2.144	100	1.299	100	2.246	100

### 4.3 JARDUERAREN ARABERA

Atal honetan, ikasleek eta ez-ikasleek duten euskararen erabileraren artean alderik dagoen aztertuko da eta, egotekotan, non nabarmentzen den gehien alde hori.

Gogoratu behar da metodologiaren atalean esan den bezala, neurketa honen ezaugarri nagusia diskrezioa dela, eta, beraz, ezin ditugula zorrotz kontrolatu bi ezaugarriak: alde batetik, behatuak diren guztiak fakultate horietako ikasle edo ez-ikasleak izatea (bertara beste egitekoren batera etorritakoak izan baitaitezke), eta bestalde, ikasleak edo ez-ikasleak diren. Datu bilketarako, arestian aipatu bezala, 30 urte azpiko gazteak hartu dira ikasletzat, eta hortik gorakoak ez-ikasle modura. Horiek, jakina, irakasleak edo bestelako langileak izan daitezke.

7. grafikoa: EUSKARAREN ERABILERA, JARDUERAREN ARABERA. UPV/EHUko ZENBAIT FAKULTATE, 2020 (%)



Grafikoan ikus daitekeenez, behaketa egin den fakultateetan ez dago homogeneotasunik ikasleen eta ez-ikasleen euskararen erabileraren artean.

Bi fakultateetan, ikasleen erabilera handiagoa da ez-ikasleena baino. Bi fakultate horiek Donostian kokatzen dira:

- Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoako atala): 6,1 puntuko aldea.
- Arkitektura Goi Eskola Teknikoa: 5,6 puntuko aldea.

Gainerako bost fakultateetan, ordea, ez-ikasleen erabilera altuagoa behatu da ikasleenarekin alderatuta:

- Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola: 15,4 puntuko aldea.
- Bizkaiko Ekonomia eta Enpresa Fakultatea: 11,3 puntuko aldea.

2020-2021 ikasturtea

- Leioako Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea: 9,3 puntuko aldea.
- Bilboko Ingeniaritza Eskola: 8,3 puntuko aldea.
- Arabako Ekonomia eta Enpresa Fakultatea: 3,5 puntuko aldea.

Nolanahi ere, oso kontuan hartu behar da batzuen eta besteen arteko laginetan izan den aldea. Laginaren osaera aztertu dugunean aipatu da aztergai izan ditugun solaskideen gehiengoa ikasleak izan direla fakultate guztietan. Ondorioz, ez-ikasleen erabilera-datuak tentuz irakurri beharko lirateke, kasu batzuetan lagina txikiegia izan daitekeela kontuan hartuz.

7. taula: HIZKUNTZEN ERABILERA, JARDUERAREN ARABERA. UPV/EHUko ZENBAIT FAKULTATE, 2020

	Araba						Bizkaia					
	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Arabako atala)						Ekonomia eta Enpresa Fakultatea					
	Ikasle		Ez-ikasle		Zalantzazkoak		Ikasle		Ez-ikasle		Zalantzazkoak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<b>Euskara</b>	252	% 28,0	46	% 31,5	3	% 60,0	659	% 9,4	173	% 20,7	9	% 40,9
<b>Gaztelania</b>	645	% 71,6	100	% 68,5	2	% 40,0	6.192	% 88,4	625	% 74,9	11	% 50,0
<b>Frantsesa</b>	4	% 0,4	0	% 0,0	0	% 0,0	83	% 1,2	2	% 0,2	0	% 0,0
<b>Beste hizkuntza bat</b>	0	% 0,0	0	% 0,0	0	% 0,0	67	% 1,0	35	% 4,2	2	% 9,1
<b>GUZTIRA</b>	901	100	146	100	5	100	7.001	100	835	100	22	100

	Bizkaia											
	Bilboko Ingeniaritza Eskola			Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Leioa)								
	Ikasle		Ez-ikasle		Zalantzazkoak		Ikasle		Ez-ikasle		Zalantzazkoak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<b>Euskara</b>	207	% 6,1	32	% 14,4	0	% 0,0	1126	% 21,6	71	% 30,9	0	% 0,0
<b>Gaztelania</b>	3.143	% 93,3	190	% 85,6	2	% 100,0	4.074	% 78,3	159	% 69,1	0	% 0,0
<b>Frantsesa</b>	0	% 0,0	0	% 0,0	0	% 0,0	0	% 0,0	0	% 0,0	0	% 0,0
<b>Beste hizkuntza bat</b>	20	% 0,6	0	% 0,0	0	% 0,0	3	% 0,1	0	% 0,0	0	% 0,0
<b>GUZTIRA</b>	3.370	100	222	100	2	100	5.203	100	230	100	0	100

	Gipuzkoa											
	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoako atala)			Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE)								
	Ikasle		Ez-ikasle		Zalantzazkoak		Ikasle		Ez-ikasle		Zalantzazkoak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<b>Euskara</b>	1008	% 32,8	31	% 26,7	2	% 40,0	1629	% 26,9	121	% 42,3	0	% 0,0
<b>Gaztelania</b>	2.038	% 66,3	83	% 71,6	3	% 60,0	4.397	% 72,5	150	% 52,4	16	% 100,0
<b>Frantsesa</b>	6	% 0,2	0	% 0,0	0	% 0,0	29	% 0,5	8	% 2,8	0	% 0,0
<b>Beste hizkuntza bat</b>	21	% 0,7	2	% 1,7	0	% 0,0	10	% 0,2	7	% 2,4	0	% 0,0
<b>GUZTIRA</b>	3.073	100	116	100	5	100	6.065	100	286	100	16	100

	Gipuzkoa					
	Arkitektura Goi Eskola Teknikoa					
	Ikasle		Ez-ikasle		Zalantzazkoak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%

2020-2021 ikasturtea


<b>Euskara</b>	776	% 47,0	82	% 41,4	18	% 35,3
<b>Gaztelania</b>	862	% 52,2	103	% 52,0	17	% 33,3
<b>Frantsesa</b>	6	% 0,4	0	% 0,0	0	% 0,0
<b>Beste hizkuntza bat</b>	8	% 0,5	13	% 6,6	16	% 31,4
<b>GUZTIRA</b>	1.652	100	198	100	51	100

### 4.3.1 Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE)

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolaren kasuan, bi eraikinetan jaso da euskara gehiago darabiltela ez-ikasleek ikasleek baino.

Halaber, azpimarratzekoa da Donostiako eraikinean alde hori oso nabarmena dela: 24 puntuko aldea. Eibarko eraikinean aldea txikiagoa da, 6,8 puntukoa.

**8. grafikoa: EUSKARAREN ERABILERA, JARDUERAREN ARABERA. UPV/EHUko GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA (GIE), 2020 (%)**



**8. taula: HIZKUNTZEN ERABILERA, JARDUERAREN ARABERA. UPV/EHUko GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA (GIE), 2020**


	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE)											
	Donostiako eraikina						Eibarko eraikina					
	Ikasle		Ez-ikasle		Zalantzasok		Ikasle		Ez-ikasle		Zalantzasok	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<b>Euskara</b>	955	% 35,6	81	% 59,6	0	% 0,0	674	% 19,9	40	% 26,7	0	% 0,0
<b>Gaztelania</b>	1.725	% 64,2	55	% 40,4	0	% 0,0	2.672	% 79,1	95	% 63,3	16	% 100,0
<b>Frantsesa</b>	0	% 0,0	0	% 0,0	0	% 0,0	29	% 0,9	8	% 5,3	0	% 0,0
<b>Beste hizkuntza bat</b>	6	% 0,2	0	% 0,0	0	% 0,0	4	% 0,1	7	% 4,7	0	% 0,0
<b>GUZTIRA</b>	2.686	100	136	100	0	100	3.379	100	150	100	16	100

#### 4.4 SOLASKIDE-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA

Atal honetan aztertuko dugu ea ikasleek eta ez-ikasleek hizkuntza-hautu berdina egiten duten euren arteko talde homogeneousan edota talde mistoetan (ikasleek eta ez-ikasleek osaturiko taldeetan, alegia).

Ikasleak irakasleekin (ez-ikasleekin) daudenean erabilera aldatzen al da? edota, alderantziz, ikasleen presentziak baldintzatzen al du irakasleen erabilera? Hori da ondorengo grafikoak eta taulako datuek erakutsiko dutena.

##### 9. grafikoa: EUSKARAREN ERABILERA, SOLASKIDE-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. UPV/EHUko ZENBAIT FAKULTATE, 2020 (%)



Fakultatez fakultate, ikasleek osatutako taldeetako erabilera bat dator, hein handi batean, euskararen erabilera orokorrarekin. Zentzuzkoa da hori, izan ere, txosten honetako 3.4.2. atalean azaldu moduan, aztergai izan dugun lagina, nagusiki, ikasleek osatu dute.

Ez-ikasleek osatutako taldeen euskararen erabilera altuenetik txikienera ordenatuz gero, fakultateen hurrenkera hau osa daiteke:

- Erabilera % 30-40 dutenen multzoa:
  - Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE): % 39,7
  - Arkitektura Goi Eskola Teknikoa: % 32,1
- Erabilera % 20-30 dutenen multzoa:
  - Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Leioa): % 29,7
  - Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoako atala): % 25,3



## 2020-2021 ikasturtea

- Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Arabako atala): % 22,6
- Ez-ikasleen arteko erabilera maila baxuenak:
  - Ekonomia eta Enpresa Fakultatea: % 18,9
  - Bilboko Ingeniaritza Eskola: % 13,9

Hala, ez-ikasleek osatutako taldeetako erabilera fakultateko euskararen erabilera orokorra baino altuagoa da kasu hauetan: Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE), Leioako Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea eta Bilboko Ingeniaritza Eskola. Hain zuzen, azken hiru fakultate horietan jaso da euskararen erabilera orokor baxuena 2020-2021 ikasturtean.

Fakultate gehienetan, talde mistoetako euskararen erabilera da altuena.

- Aipatzekoa da Arkitektura Goi Eskola Teknikoko ikasleak eta ez-ikasleak elkartzen direnean nagusiki euskaraz aritzen direla solaskideak: % 62,6
- Talde misto hauetan entzundako hamar solaskidetatik lau euskaraz ari ziren honako fakultate hauetan:
  - Arabako Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (% 45,3)
  - Bizkaiko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (% 42,3)
  - Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan (% 38,9)
  - Leioako Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean (% 37,1)
  - Gipuzkoako Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (% 35,6)
- Erabilera-datu txikiagoa jaso da Bilboko Ingeniaritza Eskolan (% 26,1).

Horiek horrela, interesgarria da honako fenomeno hau azpimarratzea: ikasleak ez-ikasleekin (irakasleekin) elkartzen direnean, nabarmen igotzen da euskararen erabilera. Horretarako, ikasleek soilik osatutako taldeetako erabilera alderatuko dugu talde mistoetako erabilerarekin:

- Berebiziko aldea nabaritu da, esate baterako, erabilera orokor txikiena duten Bilboko bi fakultateetan:
  - Ekonomia eta Enpresa Fakultatea: 33,5 puntu, ikasleen arteko erabilera % 8,8 izatetik talde mistoetako erabilera % 42,3 izatera.
  - Bilboko Ingeniaritza Eskola: 20,2 puntu, % 5,9tik % 26,1era
  - Arabako Ekonomia eta Enpresa Fakultatea: 20 puntu, % 25,3tik % 45,3ra.
- Esanguratsua da fakultate hauetan sumatzen den saltoa ere:
  - Arkitektura Goi Eskola Teknikoa: 16,2 puntu, % 46,4tik % 62,6ra.

2020-2021 ikasturtea

- Leioako Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea: 15,6 puntu, % 21,5etik % 37,1era.
- Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE): 12,2 puntu, % 26,7tik % 38,9ra.
- Azkenik, alde txikiena antzeman da Gipuzkoako Ekonomia eta Enpresa Fakultatean: 2,9 puntu, % 32,7tik % 35,6ra.

Fenomeno hori Euskal Herriko fenomeno ia orokorra da. Izan ere, Hizkuntzen Erabileraren Kale-neurketa ugaritan nabari ohi da haurren presentziak eragiten duela helduek euskara gehiago erabil dezaten; eta, era berean, helduen presentziak eragiten duela haurrek euskaraz gehiago egin dezaten (Soziolinguistika Klusterra, 2017).

Azken finean, euskararen erabilera handitu egiten da erabilera formaletik hurbil egotean. Horixe ikus daiteke behatutako fakultateetan ere; oro har, euskararen erabilera handitu egiten da ikasleak eta irakasleak elkartzen direnean.

Hala eta guztiz ere, ez-ikasleek soilik osatutako taldeen erabilera-datuak nahiz talde mistoetakoak tentuz irakurtzea komeni da. Izan ere, kasuren batean lagin txikiegia eskuratu izana gerta daiteke. Taula honetan ikus daitezke fakultate bakoitzean behatutako solaskideak, elkarriketa osatu dutenen ezaugarrien arabera:

**9. taula: HIZKUNTZEN ERABILERA, SOLASKIDE-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. UPV/EHuko ZENBAIT FAKULTATE, 2020**

	Araba						Bizkaia					
	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Arabako atala)						Ekonomia eta Enpresa Fakultatea					
	Ikasle taldeak		Ez-ikasle taldeak		Talde mistoak		Ikasle taldeak		Ez-ikasle taldeak		Talde mistoak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<b>Euskara</b>	207	% 25,3	12	% 22,6	82	% 45,3	606	% 8,8	145	% 18,9	90	% 42,3
<b>Gaztelania</b>	607	% 74,2	41	% 77,4	99	% 54,7	6.129	% 89,2	593	% 77,1	102	% 47,9
<b>Frantsesa</b>	4	% 0,5	0	% 0,0	0	% 0,0	77	% 1,1	0	% 0,0	8	% 3,8
<b>Beste hizkuntza bat</b>	0	% 0,0	0	% 0,0	0	% 0,0	60	% 0,9	31	% 4,0	13	% 6,1
<b>GUZTIRA</b>	818	100	53	100	181	100	6.872	100	769	100	213	100
	<b>Bizkaia</b>											
	Bilboko Ingeniaritza Eskola						Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Leioa)					
	Ikasle taldeak		Ez-ikasle taldeak		Talde mistoak		Ikasle taldeak		Ez-ikasle taldeak		Talde mistoak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<b>Euskara</b>	199	% 5,9	28	% 13,9	12	% 26,1	1107	% 21,5	57	% 29,7	33	% 37,1
<b>Gaztelania</b>	3.127	% 93,5	174	% 86,1	34	% 73,9	4.037	% 78,4	135	% 70,3	56	% 62,9
<b>Frantsesa</b>	0	% 0,0	0	% 0,0	0	% 0,0	0	% 0,0	0	% 0,0	0	% 0,0
<b>Beste hizkuntza bat</b>	20	% 0,6	0	% 0,0	0	% 0,0	3	% 0,1	0	% 0,0	0	% 0,0
<b>GUZTIRA</b>	3.346	100	202	100	46	100	5.147	100	192	100	89	100
	<b>Gipuzkoa</b>											

	Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoako atala)						Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE)					
	Ikasle taldeak		Ez-ikasle taldeak		Talde mistoak		Ikasle taldeak		Ez-ikasle taldeak		Talde mistoak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<b>Euskara</b>	991	% 32,7	24	% 25,3	26	% 35,6	1593	% 26,7	92	% 39,7	65	% 38,9
<b>Gaztelania</b>	2.008	% 66,4	69	% 72,6	47	% 64,4	4.363	% 73,1	133	% 57,3	67	% 40,1
<b>Frantsesa</b>	6	% 0,2	0	% 0,0	0	% 0,0	2	% 0,0	0	% 0,0	35	% 21,0
<b>Beste hizkuntza bat</b>	21	% 0,7	2	% 2,1	0	% 0,0	10	% 0,2	7	% 3,0	0	% 0,0
<b>GUZTIRA</b>	3.026	100	95	100	73	100	5.968	100	232	100	167	100

	Gipuzkoa					
	Arkitektura Goi Eskola Teknikoa					
	Ikasle taldeak		Ez-ikasle taldeak		Talde mistoak	
Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	
<b>Euskara</b>	718	% 46,4	61	% 32,1	97	% 62,6
<b>Gaztelania</b>	818	% 52,9	100	% 52,6	58	% 37,4
<b>Frantsesa</b>	3	% 0,2	0	% 0,0	0	% 0,0
<b>Beste hizkuntza bat</b>	8	% 0,5	29	% 15,3	0	% 0,0
<b>GUZTIRA</b>	1.547	100	190	100	155	100

Ondorioz, fakultateetako eremu informaletako euskararen erabilera solaskide-taldearen osaeraren arabera aztertzen badugu, bi eredu nagusirekin egiten dugu topo:

- 1.eredua: Erabilera altuena talde mistoetan, ondoren ikasleen arteko erabilera eta azkenik ez-ikasleek osatutako taldeetako erabilera.

Hiru fakultateren kasuz ari gara:

- Arabako Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
- Gipuzkoako Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
- Arkitektura Goi Eskola Teknikoa
- 2.eredua: Erabilera altuena talde mistoetan, ondoren ez-ikasleen arteko erabilera eta azkenik ikasleek soilik osatutako taldeetako erabilera.

Eredu hau, berriz, Bizkaiko hiru fakultateek jarraitzen dute:

- Bizkaiko Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
- Bilboko Ingeniaritza Eskola
- Leioako Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea


Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolaren (GIE) kasuan, talde mistoetako eta ez-ikasleetako euskararen erabilera-maila parekoa izan da, eta ikasleen arteko erabilera txikiagoa.

#### 4.4.1 Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE)

Azter dezagun sakonago Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako kasua:

- Donostiako eraikina aurreko atalean azaldutako 2.ereduaren baitan kokatuko litzateke.
- Eibarko eraikinean, aldiz, salbuespen egoera gertatzen da: ez-ikasleek darabilte euskara gehien fakultatean, jarraian dator ikasleen arteko erabilera; eta, azkenik, ez da erabilera igoerarik sumatzen ikasleak eta ez-ikasleak elkartzen direnean.

10. grafikoa: EUSKARAREN ERABILERA, SOLASKIDE-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. UPV/EHUko GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA (GIE), 2020 (%)



10. taula: HIZKUNTZEN ERABILERA, SOLASKIDE-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. UPV/EHUko GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA (GIE), 2020

	Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (GIE)											
	Donostiako eraikina						Eibarko eraikina					
	Ikasle taldeak		Ez-ikasle taldeak		Talde mistoak		Ikasle taldeak		Ez-ikasle taldeak		Talde mistoak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<b>Euskara</b>	925	% 35,0	58	% 54,7	53	% 74,6	668	% 20,1	34	% 27,0	12	% 12,5
<b>Gaztelania</b>	1.714	% 64,8	48	% 45,3	18	% 25,4	2.649	% 79,7	85	% 67,5	49	% 51,0
<b>Frantsesa</b>	0	% 0,0	0	% 0,0	0	% 0,0	2	% 0,1	0	% 0,0	35	% 36,5
<b>Beste hizkuntza bat</b>	6	% 0,2	0	% 0,0	0	% 0,0	4	% 0,1	7	% 5,6	0	% 0,0
<b>GUZTIRA</b>	2.645	100	106	100	71	100	3.323	100	126	100	96	100

## 5 DATU NAGUSIEN LABURPENA

Hona hemen euskararen erabilera-datu nagusien laburpena:

### Datu orokorrak

#### GIPIZKOA

- Arkitektura Goi Eskola Teknikoa: %46,1
- Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoako atala): %32,6
- Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako (GIE): %27,5

#### ARABA

- Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Arabako atala): %28,6

#### BIZKAIA

- Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Leioa): %22
- Ekonomia eta Enpresa Fakultatea: %10,7
- Bilboko Ingeniaritza Eskola: %6,6

### GIZON / EMAKUME

#### EMAKUMEA, ORO HAR, GEHIAGO

- Arabako Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (%35,7 / %21,8)
- Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan (%33,2 / %24,9)
- Arkitektura Goi Eskola Teknikoan (%48,1 / %41,9)
- Leioako Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean (%23,5 / %19)
- Bilboko Ingeniaritza Eskolan (%7,8 / %5,9)
- Gipuzkoako Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (%33,8 / %31,2)

#### ERABILERA-MAILA BERA

- Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Bizkaia): %10,8 / %10,5

### IKASLE / EZ- IKASLE

#### IKASLEAK gehiago

- Gipuzkoako Ekonomia eta Enpresa Fakultatean
- Arkitektura Goi Eskola Teknikoan

#### IRAKASLEAK gehiago

- Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan
- Bizkaiko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean
- Leioako Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean
- Bilboko Ingeniaritza Eskolan
- Arabako Ekonomia eta Enpresa Fakultatean

## BIBLIOGRAFIA

Altuna, O., & Basurto, A. (2013). *Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Soziolinguistika Klusterra. (2017). *Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa: Euskal Herria, 2016*. <http://soziolinguistika.eus/kaleneurketaeh>.

Soziolinguistika Klusterra. (2018). *Euskal Herriko Unibertsitateko zenbait fakultatetan Hizkuntza-Erabileraren Kale-Neurketa, 2018*. *Emitzen txostena*. Andoain: (Argitaratu gabeko txostena).

Soziolinguistika Klusterra. (2019). *Euskal Herriko Unibertsitateko zenbait fakultatetan egindako Hizkuntza-erabileraren Kale-neurketa (2019)*. Andoain: (Argitaratu gabeko txostena).